

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**176/2016 Foru Agindua, uztailaren 8koa, behin betiko onartzen duena baldintzekin Zuiako udal planeamenduaren arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren espedientea, Zuiako 7 poligonoko 308 lurzatiaren (28 lurzati zaharraren zatia. Murgia) kalifikazio aldaketari buruzkoa**

#### I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Zuiako Udalak 2016ko martxoaren 10eko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari, zeina Murgiko 7 poligonoko 307 lurzatiari (28 lurzati zaharraren zatia) baitagokio, eta hura jendaurrean jartzea. Hala, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (35. zenbakia), 2016ko martxoaren 30ean, "El Correo" egunkarian, 2016ko martxoaren 22an, eta udalaren iragarki oholean, eta administrazio batzarrei jakinarazi zitzairen.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean inongo alegaziorik aurkeztu ez zenez gero, udalak behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, 2016ko ekainaren 16ko bilkuran.

Hirugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 125/2016 Foru Aginduaren bidez, 2016ko ekainaren 6ko ALHAOn (64. zk.) argitaratuta, aldeko irizpena eman zitzaion ingurumen txosten estrategikoari, zenbait baldintzapean, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Zuiako Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onartua izan zedin. Espediente hori 2016ko ekainaren 23an sartu zen AFAREN erregistro orokorrean.

#### II. OINARRIAK

Lehenengoa. Murgiko Administrazio Batzarrak sustatu duen espediente horren xedea da Zuian indarrean dagoen planeamenduko arau subsidiarioak aldatzea; hain zuzen ere, 7 poligonoko 308 katastro lurzatiari dagozkionak. Zuiako Udalaren lurzati horrek, katastro datuen arabera, 554 m<sup>2</sup> ditu eta ez du inongo eraikinik. Argitzea merezi du, bestalde, egungo 7 poligonoko 308 lurzatia, aldatzen dena, 7 poligonoko 28 lurzati zaharra bereiztearen ondorio dela eta bereizte hori 2016ko apirilean islatu zela katastroan; horiek horrela, nola administrazio espedienteak hala agiri teknikoak hura aipatzean 7 poligonoko 28 lurzatia diote.

Helburua da egun Egoitzetarako Hiri Lurzoruaren (SUR-2) kalifikazioa duen lurzatia administrazio eta gizarte arloko komunitate ekipamenduen toki sistemako lurzati kalifikatzea, eta hala balitz, zuzkidura lurzoruaren ordenantza aplikatuko litzaioke.

Bigarrena. Agiri teknikoak aldaketa hori arrazoitzen du ahalbidetzeko Murgiko Administrazio Batzarraren egoitza izango den eraikina eraikitzea, lurzatiari eman nahi zaion erabilerarekin lotuago dauden baldintzetan.

Hirugarrena. Agiria aztertu ondoren, uste da behar bezala justifikatu direla egin nahi den aldaketaren komenentzia eta egokitasuna.

Hala ere, badira agiri teknikoan zuzendu behar diren zenbait alde. Hauek, hain zuzen ere:

1. Planoei dagokienez, hala egungo antolamendua islatzen duen plano nola proposatutako antolamendua islatzen duena bat etorriko dira egun indarrean dagoenarekin. Horrez gain, bi plano horiek osorik eta jatorrizkoen eskala berean egon behar dute eta aldaketaren eremua jasoko dute.

2. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adierazitako baldintzen arabera zuzendurik eta beterik, \*.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, \*.dwg luzapeneko fitxategietan, 2000 bertsioan aurkeztuko dira –\*.ctb (arkatzak) edo \*.shape fitxategiak ere bai haiekin– eta testua \*.doc edo docx. luzapeneko fitxategian.

Laugarrena. Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2016ko maiatzaren 17an emandako ingurumen txosten estrategikoan zenbait baldintza jarri ditu ingurumen babes eta kautela neurri gisa. Ondorioz, ingurumen txosten estrategikoak neurri osagarri hauek jaso beharko ditu:

A. Ingurumen agiri estrategikoan bertan ezarritako ingurumen baldintzak bete beharko dira, bizitegitarako hiri eremuan zaratak eta bibrazioek eragindako eragin kaltegarriak ahalik eta txikiak izan daitezten.

B. Ez dira botako 7 poligonoko 34 eta 307 lurzatieta eta Zuiako arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren gai den eremuaren mugakide diren lurzatieta dauden zuhaitzak. Zuhaitz handiak dira, batzuk espezie autoktonoak, zehazki haritza (*Quercus robur*) eta lizarra (*Fraxinus excelsior*), eta beste batzuk espezie exotikoak: indigaztainondoa (*Aesculus hippocastanum*) eta platanoa edo alboa (*Platanus hispanica*).

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Zuiako planeamenduko arau subsidiarioen 5. aldaketaren espedientea, baldintza hauekin:

1. Egokitzea hala egungo antolamendua islatzen duen plano nola proposatutako antolamendua islatzen duena egun indarrean dagoenari. Horrez gain, bi plano horiek osorik eta jatorrizkoen eskala berean egon behar dute eta aldaketaren eremua jasoko dute.

2. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adierazitako baldintzen arabera zuzendurik eta beterik, \*.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, \*.dwg luzapeneko fitxategietan, 2000 bertsioan aurkeztuko dira –\*.ctb (arkatzak) edo \*.shape fitxategiak ere bai haiekin– eta testua \*.doc edo docx. luzapeneko fitxategian.

3. Ingurumen agiri estrategikoa osatu beharko da ingurumen txosten estrategikoan ezarritako neurri osagarriekin.

A. Ingurumen agiri estrategikoan bertan ezarritako ingurumen baldintzak bete beharko dira, bizitegitarako hiri eremuan zaratak eta bibrazioek eragindako eragin kaltegarriak ahalik eta txikiak izan daitezten.

B. Ez dira botako 7 poligonoko 34 eta 307 lurzatieta eta Zuiako arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren gai den eremuaren mugakide diren lurzatieta dauden zuhaitzak. Zuhaitz handiak dira, batzuk espezie autoktonoak, zehazki haritza (*Quercus robur*) eta lizarra (*Fraxinus excelsior*), eta beste batzuk espezie exotikoak: indigaztainondoa (*Aesculus hippocastanum*) eta platanoa edo alboa (*Platanus hispanica*).

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta berorren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi

Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailearen 8a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*